

IZENA: ASPACE. Garun Paralisia eta Antzeko Nahasmenduak dituzten Pertsonen Arabako Elkarte		
Posta-helbidea: Sofia Erreginaren hiribidea 100 Vitoria-Gasteiz (Araba) PK: 01015	Telefono-zenbakia: 945 35 75 78	
Logoa: 	Helbide elektronikoa: asociacion@aspacealava.org	QR kodea: 
	Webgunea: https://www.aspacealava.org/	
Nor diren: Bazkideek, familiek, profesionalek eta boluntarioek osatutako erakundea, zeinaren eginkizuna Garun Paralisia edo Antzeko Nahasmenduak dituzten pertsonen bizi-kalitatea hobetzea den.		
Zein talderi zuzentzen zaizkion: Garun Paralisia edo Antzeko Nahasmenduak dituzten pertsonak eta haien familiak.		
Zerbitzuak: • Gizarte-lana: Garun Paralisia edo Antzeko Nahasmenduak dituzten pertsonak edo haien familiek planteatutako eskaerak artatzen dituzte; beharrak detektatzen, informatzen, aholkatzen, laguntzen, orientatzen eta programak eta ekintzak garatzen dituzte. • Laguntza psikosoziala: Hiru ardatz nagusiren arabera ezartzen da: pertsona bera, bere familia eta ingurunearekin duen harremana. • Fisioterapia: Banakako saioak partzialki diruz laguntzen dira, habilitazio-birgaitze eragile egokia lantzeko. • Estimulazio sentzoriala: Gela multisentoralean saioak egiten dira, zentzumenen bidez esnatzea sustatzeko eta ingurunearekin harremana izateko. • Logopedia: Komunikazioari eta irenketari buruzko balorazioa eta aholkularitza, zailtasunak identifikatu eta konpontzeko. • Aholkularitza eta autonomia sustatzea: Aspace Arabako jardueretan zuzenean parte hartzen duten pertsonen aholkularitza eta orientazioa, eta familien koordinazioa, balorazioa, jarraipena eta laguntza. • Elkarte-zerbitzuak: Herritarrak oro har sentibilizatzera, zabaltzera, prestatzera eta informatzera zuzenduta, eta hainbat instituzio eta erakunderekin sarean lan egiteko.		
Programak eta proiektuak: ATSEDENALDIA ETA GIZARTE-PARTAIDETZA PROGRAMA: Eskola-ikasturteko jarduera-programa: • Kirol egokituko jarduerak: gaitasun hauek garatzera zuzendutakoak: potentzial fisikoa mantentzera, zaintzera eta garatzera, autonomia eta funtzionaltasuna hobetzera, gaitasunak indartzera eta sozializazioa eta inklusioa sustatzera. • Laguntza eta sustapen tailerrak: hainbat gai eta eduki lantzen diren tailerrak (sormena, estimulazio sentzoriala, zaintzailearen zaintza...) bazkide-pertsonen eta/edo haien familiei zuzenduta. • "Aspaclub": Gizarte-partaidetzako eta dibertsiozko jarduerak, bai Aspace Arabako egoitzan bai hiriko hainbat lekutan egiten direnak. Uda-programak: Uztailean egiten dira eta familia-atsedenaldirako eta dibertsiozko gunea eskaintzen dute: • AspaceLeku: Vitoria-Gasteizen eguneko egonaldia, eskola-adineko haur, neska-mutil eta gazteei zuzenduta, eta/edo laguntza orokor handiak dituzten eta Vitoria-Gasteiztik Kanpoko Egonaldi Programan parte hartu ezin duten pertsonen. • Vitoria-Gasteiztik kanpoko Egonaldi Programa: 8 eguneko egonaldia hirietatik kanpo. BOLUNTARIOTZA PROGRAMA: Taldearen mendekotasun-egoera dela eta, urte osoan eskola-ikasturteko jarduerak aurrera eramateko boluntarioak behar dira. "GUREKIN" PROIEKTUA: Garun Paralisia edo Antzeko Nahasmenduak dituzten pertsonak zaintzen dituzten familiei zuzendutako laguntza-proiektua.		